



**EBAZPENA, 2019KO MAIATZAREN 07KOA, GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIARENA, LANORDUZ KANPOKO EUSKARA HIZKUNTZAREN PRESTAKUNTZAKO 2019KO UDAKO IKASTARO TRINKOETARAKO ETA 2019-2020 IKASTURTERAKO DEIALDIA EGITEN DUENA.**

**RESOLUCIÓN DEL 07 DE MAYO DE 2019, DE LA DIRECTORA DE RECURSOS HUMANOS POR LA QUE SE CONVOCA FORMACIÓN LINGÜÍSTICA EN EUSKERA FUERA DEL HORARIO LABORAL PARA CURSOS INTENSIVOS DE VERANO DE 2019 Y EL CURSO ACADÉMICO 2019-2020.**

Urtarrilaren 17ko 4/2012 Dekretuak, Ertzaintzako langileen lan-baldintzak araupetzeko Akordioa onartzen duenak, 68. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, baita Euskara hizkuntza prestakuntzan parte hartzea eta euskara azterketa ofizialak egitea izena duen P02230 prozedurarekin bat etorriz ere, eta apirilaren 11ko 83/2017 Dekretuak, Segurtasun Sailaren egitura organikoari eta funtzionari buruzkoak, 12. artikuluan ezarritakoaren arabera niri dagozkidan eskumenak gauzatzuz, honako hau

De conformidad con las previsiones del artículo 68 del Decreto 4/2012, de 17 de enero, por el que se aprueba el Acuerdo regulador de las condiciones de trabajo del personal de la Ertzaintza y el procedimiento P02230, sobre Acceso a la formación lingüística en euskera y realización de exámenes oficiales de euskera, en ejercicio de las atribuciones que me confiere el artículo 12 del Decreto 83/2017, de 11 de abril, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Seguridad,

**EBAZTEN DUT****RESUELVO**

**LEHENENGOA.-** Deialdiaren xede eta esparrua.

**PRIMERO.-** Objeto y ámbito de la convocatoria.

1.- Deialdi honen xedea da 2019ko udako ikastaro trinkoetarako eta 2019-2020 ikasturterako lanorduz kanpoko euskara hizkuntzaren prestakuntzarako eskaerak aurkezteko epea deitzea.

1.- Es objeto de la presente convocar periodo para la admisión a formación lingüística en euskera fuera del horario laboral, para los cursos de verano de 2019 y para el curso académico 2019-2020.

2.- Deialdi hau Ertzaintzaren karrerako funtzionarioentzat, zerbitzu aktibo egoeran edo bigarren jardura egoeran daudenean, eta Ertzaintzaren oinarrizko eskalan agente kategorian sartu nahi duten praktiketako langile funtzionarioentzat da.

2.- La presente convocatoria se dirige a personal funcionario de carrera de la Ertzaintza, en las situaciones administrativas de servicio activo y segunda actividad, y a personal funcionario en prácticas aspirante a ingreso en la categoría de agente de la escala básica de la Ertzaintza.

3.- Euskara hizkuntzaren prestakuntza lanorduz kanpoko izango da.

3.- La formación lingüística en euskera se desarrollará fuera del horario laboral.

4.- Ikastaroak, aurrez aurrekoak zein autoikaskuntzakoak, HABE euskaltegi publiko, pribatu homologatu eta autoikaskuntzarako zentroentzako diru-laguntzen deialdietan onartzen dituenak izan beharko dira eta HABEren Erregistroan inskribaturik dauden euskaltegi publiko, pribatu homologatu eta autoikaskuntzarako zentro egingo dira. Onargarriak izango diren moduluak i. eranskinean bilduta daude.

4.- Los cursos, tanto los presenciales como los de autoaprendizaje, deberán ser los regulados por HABE en las convocatorias de subvención de los euskaltegis públicos, privados homologados y centros de autoaprendizaje y se desarrollarán en euskaltegis públicos, privados homologados y centros homologados de autoaprendizaje inscritos en el Registro de HABE. Los módulos admisibles



están recogidos en el Anexo I.

5.- Betekizuna da Segurtasun Sailak diruz lagundutako aurreko ikastaroan gutxienez %80ko asistentzia edo errendimendu egokia (egindako euskara maila edo azpimaila gainditzea) betetzea.

5.- Es requisito contar con una asistencia igual o superior al 80% o un rendimiento satisfactorio (haber superado el subnivel o nivel de euskera cursado) en el curso anterior subvencionado por el Departamento de Seguridad.

**BIGARRENA.-** EUSKARA HIZKUNTZA PRESTAKUNTZAN PARTE HARTZEA ETA EUSKARA AZTERKETA OFIZIALAK EGITEA izenburua duen P02230.5 prozeduraren bitartez arautzen dira ikastaro hauek.

**SEGUNDO.-** Los cursos objeto de la presente convocatoria, se rigen por el procedimiento P02230.5 de ACCESO A FORMACIÓN LINGÜÍSTICA EN EUSKERA Y REALIZACIÓN DE EXAMENES OFICIALES DE EUSKERA.

**HIRUGARRENA.-** Lanorduz kanpo euskara hizkuntza prestakuntzan parte hartzeko eskaerak.

**TERCERO.-** Solicitudes de participación en la formación lingüística en euskera fuera del horario laboral.

1.- Lanorduz kanpo euskara hizkuntza prestakuntzan parte hartzeko, Ebazpen honetako II. eranskinean dagoen S452/3 eskaera bete eta Giza Baliabideen bulegoetan aurkeztu behar da.

1.- Para participar en los cursos de euskera fuera del horario laboral se deberá cumplimentar el impreso S452/3, que figura como Anexo II a esta Resolución, y presentarlo en las oficinas de Recursos Humanos.

2.- Eskaerak aurkezteko epea Ebazpen hau Gureneteko atarian argitaratu eta biharamunean hasiko da eta 2019ko ekainaren 03an bukatuko da.

2.- El plazo de presentación de solicitudes se inicia al día siguiente de la publicación de la presente Resolución en el portal Gurenet y finaliza el día 03 de junio de 2019.

3.- Deialdi honetan gehienez matrikula bi eskatu ahal izango dira: bata 2019ko udako ikastaro trinkoetarako eta bestea 2019-2020 ikasturterako.

3.- Se podrán solicitar un máximo de dos matriculas en esta convocatoria: una para los cursos intensivos de verano de 2019 y otra correspondiente al curso académico 2019-2020.

**LAUGARRENA.-** Eskaerak onartzeko baldintzak.

**CUARTO.-** Requisitos para la admisión de las solicitudes.

1.- Euskara hizkuntza prestakuntzan parte hartzea eta euskara azterketa ofizialak egitea izena duen P02230.5 prozedurak ezarritakoak dira.

1.- Los establecidos en el procedimiento P02230.5, sobre Acceso a la formación lingüística en euskera y realización de exámenes oficiales de euskera.

**BOSGARRENA.-** Matrikularen prozedura.

**QUINTO.-** Procedimiento de matrícula.

1.- Prestakuntza eta Hizkuntza Normalkuntza Atalak zentroetako Giza Baliabideen bulegoen bitartez, eskaera onartua izan duten ikasleei matrikula orri emango die. Matrikula orri horrek bertan azaltzen den

1.- La Sección de Formación y Normalización Lingüística, a través de las oficinas de Recursos Humanos de los centros, entregará la hoja de matrícula al alumno o alumna cuya solicitud haya



epealdian, eta ez beste batean, matrikulatzeko baliokoduko du.

2.- Interesdunak ikastaroa hasi baino lehen euskaltegian edota autoikaskuntza zentroan matrikulatu beharko dira. Horretarako ezinbestekoa da bertan matrikula orria aurkeztea.

3.- Langilea azkenean inon matrikulatzen ez bada, ahalik eta lasterren itzuli behar du bere matrikula orria Prestakuntza eta Hizkuntza Normalkuntza Atalera.

4.- Eskolan hasi ondoren, ikasleak ikastaroa behin betiko uzten badu, horren berri eman behar dio berehala idatziz Giza Baliabideen Zuzendaritzako Prestakuntza eta Hizkuntza Normalkuntza Atalari eskola uztea gertatzen den une berean, S443-3 inprimaki normalizatuaren bidez (III. eranskina).

5.- Segurtasun Sailaren eta HABEren arteko kudeaketa gomendioaren bidez prestakuntza ekintzaren jarraipena egin eta langileen matrikulen kostu osoa kudeatuko da.

**SEIGARRENA.-** Ebazpen honek ez du administrazio bidea amaitzen eta interesdunek haren aurka gora jotzeko errekurtsoa jar diezaioke Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari. Horretarako epea hilabete izango da, ebazpena argitaratzen denetik aurrera, Herri Administrazioen Araubide Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

sido admitida. La hoja de matrícula servirá para matricularse únicamente en el periodo académico que en la misma se detalla.

2.- Quienes estén interesados deberán formalizar solicitud de matrícula en el euskaltegi o en el centro de autoaprendizaje, antes del comienzo del curso, para lo que será indispensable entregar en el centro de formación la hoja de matrícula que se les haya facilitado.

3.- Aquellas alumnas y alumnos que finalmente no se matriculen en ningún curso deberán devolver la hoja de matrícula a la Sección de Formación y Normalización Lingüística lo antes posible.

4.- Si una vez comenzado el curso alguna persona opta por abandonarlo definitivamente, deberá comunicarlo por escrito de forma inmediata a la Sección de Formación y Normalización Lingüística de la Dirección de Recursos Humanos mediante el escrito normalizado S443-3 (Anexo III).

5.- El Departamento de Seguridad realizará el seguimiento de la actividad formativa y tramitará el pago íntegro de las matrículas mediante la encomienda de gestión establecida para tal efecto con HABE.

**SEXTO.-** La presente resolución no pone fin a la vía administrativa y contra la misma los interesados podrán interponer recurso de alzada ante la Viceconsejera de Administración y Servicios en el plazo de un mes a partir de la publicación de la presente resolución, conforme a lo previsto en los artículos 121 y 122 de la Ley 39/2015 del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Erandio, 2019ko maiatzaren 07a.

Izpta.: **Miren Karmele Arias Martínez**  
Giza Baliabideen zuzendaria

**I. ERANSKINA  
IKASTARO-MODULU ONARGARRIAK****ANEXO I  
CURSOS-MÓDULOS ADMISIBLES**

1.1.- 2019ko udako ikastaroak (uztaila, abuztua, iraila):

1.1.- Cursos de verano (julio, agosto, septiembre) de 2019:

1.1.1.- Aurrez aurreko irakaskuntzan, gutxienez 80 irakastordu era jarraituan eta zatikatu gabe.

1.1.1.- Cursos presenciales, de 80 horas continuas y sin fraccionar como mínimo.

1.1.2.- Autoikaskuntzan, 70 irakastordu gehienez

1.1.2.- Cursos de autoaprendizaje, con una duración máxima de 70 horas.

1.2.- 2019ko urritik 2020ko ekainera bitartekoak

1.2.- Cursos entre octubre de 2019 y junio de 2020

1.2.1.- Aurrez aurreko irakaskuntzan gutxienez 165 irakastordu jarraian

1.2.1.- Cursos presenciales, de 165 horas continuas como mínimo.

1.2.2.- Autoikaskuntzan:  
• Ikasturte osokoa: 190 irakastordu gehienez, 9 hilabete  
• Ikasturte erdikoa: 100 irakastordu gehienez, 4-5 hilabete

1.2.2.- Cursos de autoaprendizaje:  
• Curso completo: 190 horas como máximo, 9 meses.  
• Medio curso: 100 horas como máximo, 4-5 meses.

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

SEGURTASUN SAILA  
Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetza  
Giza Baliabideen Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD  
Viceconsejería de Administración y Servicios  
Dirección de Recursos Humanos

**II. ERANSKINA**  
**ANEXO II**

**S452/3 EUSKARA IKASTEKO ESKABIDEA**

**SOLICITUD DE SUBVENCIÓN DE MATRÍCULAS S452/3**



**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

SEGURTASUN SAILA  
Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetza  
Giza Baliabideen Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD  
Viceconsejería de Administración y Servicios  
Dirección de Recursos Humanos

**III. ERANSKINA**  
**ANEXO II**

**S443/3 IKASTAROA UZTEKO ESKABIDEA**

**SOLICITUD PARA INTERRUMPIR EL CURSO S443/3**

